

EUSKAL HERRIAREN KULTURAZKO AUTODETERMINAZIOA

Paulo Agirrebaltzategi

Martxoaren 5etik 16ra bitartean ospatu zen **Autodeterminazioari** buruzko II. Kongresua, **Giza eskubide indibidualak eta giza eskubide kolektiboak** izenpean. Eskubide kolektiboen baieztapenaren testuinguruan Herrien autodeterminazioaz iharduen zen Kongresua; bi konzeptuak dira, ordea, argitu beharrekoak: **Herria** eta **Autodeterminazioa**. II. Kongresu honetan bigarren hitzaren inguruko iharduna izan zen nagusi: Herrien **autodeterminazioaren** ikuspegi historikoa, juridikoa, politikoa, etb. I. Kongresu hartan, berriz, **Herria** hitzari buruzko gogoetaren inguruan ibili ziren gehiago: **Herrien** autodeterminazioa.

Bi Kongresuak elkarren osagarri gertatu direla esan daiteke, eta elkarrekin erabateko lotura eduki dutela. Guy Heraud irakasleak I. an eta II. ean emandako hitzaldietan nabarmentzen da, argien, bi Kongresuen ezberdintasuna, betetik, eta osagarritasuna, bestetik; honelako titulua zuen Herauden lehen hitzaldiak: **Principios para el enfoque de la cuestión étnica en Europa**; bigarrenak berriz, **Coordenadas fundamentales para el ejercicio de la libre determinación en Euskadi**.

1985eko Kongresu hartan mahainguru berezi batetan esku hartu behar izan nuen. Honako titulua hau zuen: **Kultura eta autodeterminazioa: Euskararen eta Euskal Kulturaren berreskurapena**. Bertan hartu zuten parte Ramón Labayen-ek, Joan Martín Gogorza-k eta Joxe Ramon Etxebarria-k. Kulturazko autodeterminazioaz hitz egin zuten bertan. Kontzeptu hori ez zen, ordea, mahainguru horretan bakarrik erabili; Bilbon egindako beste batean, honelako iediak erabili zituen Jabier Sádava-k: *"A mí me parece que lo primero que había que hacer es autodeterminarse culturalmente, políticamente también,*

por supuesto" (**Autodeterminación de los Pueblos, un reto para Euskadi y Europa**, Bilbao 1985, II. tomoa, 248. or.)

Euskal Herriaren kulturazko autodeterminazioaz dihardu, hain zuzen idazlantxo honek. Hirutan banatuko dut gogoetaldia: 1. Herriari dagokio auto-determinazioa; 2. Herria eta Kultura; 3. Kultur bizkundera eta autodeterminazioa.

Herriari dagokio autodeterminazioa

Nazio Batuen Erakundea (UNO)k Herria konzeptua ipintzen du bere izateko arrazoiaren oinarrian, bere eraikuntzako *"kartan"*, 1. artikuluan, dioenez: *"Nazioen arteko adiskidetasunezko harremanak bultzatuko dituzte, Herrien eskubide berdintasunaren printzipioa eta horiek beren buruen jabe izateko (autodeterminatzeko) duten eskubidea errespetatuz"*. Hortixe abiatzen da eta hortxe oinarritzen, 22 urte beranduago, 1967an, **Giza eskubideei buruzko Hitzarmen nazioartekoak** izeneko agirian zuzenkiago eta bortitzago aitorturiko Herrien autodeterminazio-eskubidea: *"Herri guztiek dute eskubidea beren buruen jabe izateko. Eskubide horren arabera, beraiek erabakiko dute askatasun osoz beren estatutu politikoa eta askatasun osoz segurtatuko dute beren garapen ekonomikoa, soziala eta kulturazkoa"*. UNOk ez du zein den Herri eta zer den Herria esaten; baina bai adierazten, baduela horrek, unitate eta berezitasun ekonomiko, sozial eta kulturazkoarekin zuzeneko zerikusia.

Edozein Herri UNOk hitzarmenaz baliatu ahal izateko, bere herritasuna agertu, baieztatu eta definitu behar du. Hortixe abiatzen da, hain zuzen, Herrien Eskubideetarako eta Askatasunerako Eus-

kadiko Ligak eta Euskariak akdarrikaturiko agiria, **Herri bat gara: Autodeterminazioa** izeneko: "Euskadi herri bat dugu, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa lurralde historikoek osotzen dutelarik. Euskal Herriaren historia, kulturak, lurraldeak, hizkuntzak, ohiturek, erakundeek eta bere nazio-kontzientziak, Herri bat (Nazioa) izateko indarra ematen diote, berarizkoa eta Gizadiko eta Estutuko beste herriengandik ezberdin". Euskal Herriaren -eta, bide batez, beste edozein Herriren- alde bitako dimentsioa nabarmentzen da hor: barrura begirako identitatea ("berdintasuna") eta kanpora begirako ezberdintasuna.

Ondorioa berez dator; eta dokumentu berberak honako "deklarazio bateratua" proposatu zien alderdi politikoei Gasteizko parlamentuan onartzeko: *Euskal Herriak autodeterminatzeko eskubidea du. Eskubide hau bere herritarrek status politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala libreki eta demokratikoki erabakitzean datza; bere marko politiko berezia eraikiz ala beste Herri batzurekin bere subiranotasuna konpartituz*".

Silogismoa itxita gelditu da: Edozein Herrik, autodeterminatzeko eskubidea du; Euskal Herria, Herria da; Euskal Herriak, autodeterminatzeko eskubidea du.

Herria eta kultura

Euskal Herriaren "herritasuna" inork gutxi ukatzen du; eta berari autodeterminatzeko eskubidea ukatzen diotenak ez dira horrelako argudiotan oinarritzen; UNOk "Hirugarren Munduko" Herrirentzat eta horrelakoentzat aldarrikatu zuela autodeterminazio-eskubidea diote maizago; hala ere, orain Alemaniari aitortzen diote horrelako eskubidea. Kontrazio politikotan nahasita dabilza horrelakoetan. Euskal Herriari -beraren izenaz gain- nekez ukatu bait diezaiokete herritasunik, nahiz eta aspalditik bi estaturen menpean zatikaturik eta desintegraturik egon.

Herria hitzak adiera bat baino gehiago ditu euskaraz: geografikoa, betetik, "promisioko herria" esaten duenen, esate baterako, Agirre Asteasukoak; eskualdea edo lurraldea adierazten du orduan. Badu, ordea, esanahi demografikoa ere, "Oñatiko herria" esaten denean, adibidez. Teologiak ere erabili ohi du hitz berbera, Eliza "Jainkoaren Herria" deitzen duenean, esate baterako, edota "herri hautatuaz" nahiz "zeruko herriaz" (Agirre Asteasukoak) mintzatzen denean. Adiera geografiko-demografikoaren eta teologiko eskatologikoaren artean dauzkagu Herriaren adiera **soziologikoa** eta **etnologikoa**. Adiera soziologikoa du, "klase herritarrak" esan nahi duenean, hau da, gizartean botere politiko, ekonomiko eta sozialik ez duen jende-multzoa. Iparraldeko literaturan eta jendearen artean erabili izan dute **populu** hitzaren esanahiari hurbiltzen zaio orduan Herriarena.



Herriaren aiderarik nabarmenena, azkenik, **Euskal Herria** izenak berak darama. Horren eduki antropologiko, linguistiko eta historikoa adierazteko "etnia" hitza asmatu zuen Vacher de Lapouguek XIX. medearen azkenean, eta gerora arrakasta handia izan du, "pueblo" edo "peuple" hitzen nahasmendu semantikoa gainditzeko.

UNOk Herrien autodeterminazio-eskubidea aldarrikatzen duenean, Herri "etnikoa" du gogoan zalantzarik gabe. Orobat Euskal Herriaren autodeterminazioaz gorago aipatu ditugun testuak Herri "etnikoaz" ari dira. **Herria-2000-Eliza**-k Herrien autodeterminazioari buruz antolatutako I. Kongresuak azken agiri bat zabaldu zuen: **Herrien Europarantz Euskal Herria bere autodeterminazioaren alde**. Bertako lehen puntuan Euskal Herriaren herritasunaren elementu **objektiboak** eta **subjektiboak** aipatzen zituen: "Nahiko elementu objektibo eta subjektibo badirela Euskal Herria Herri (Nazio) berezi eta berezitua dela aitortzeko..." (**Autodeterminación de los pueblos**, aipaturiko liburua, 324. or.). Elementu objektibo eta subjektibo horien arteko bereizketa egin ohi du zenbait adituk, Herriaren eta Nazioaren arteko aldea eta lotura adierazteko. Hemen ez gara sartuko soziologo edo filosofoen bereizkuntza horretan. Herriaren herritasuna abstraktuan aztertzean hainbat elementu ezberdin aipatu ohi dira: lurraldea, historia, kultura, hizkuntza (batzutan

erlijioa ere bai), etab. Ikuspegi marxistatik begiraturaz, Dov Ber Borjov, sionismoaren eta sozialismoaren sintesiaren egiletzat jotzen dutenak, "produkzio baldintzetan" ipintzen du Herrien arteko bereizketa, "produkzioa baliobideekiko erlazioan" legokeen bezala klaseen arteko bereizkuntza. Honela dio gaztelaniara itzultitako bere idazlan batetan: "Una sociedad que advino en las mismas condiciones de producción es comúnmente llamado pueblo; y la misma sociedad que además está unida por la conciencia de la integración de sus miembros individuales, la que proviene de un común pasado histórico, se denomina comúnmente Nación" (La cuestión nacional, EV argit., Donostia, 1979, 22.or.). Ez gara hemen Herriaren herritasunaren elementu determinatzailea zein den eztabaidatzen hasiko, autoreak berak produkzio-baldintza "materialak" eta "izpiritalak", bietakoak, direla aitortzen bait du.

Historian zehar eta historiak sorturiko erakuntza sozializat hartzen baldin badugu Herria, Herri jakin bakoitzaren elementu ezaugarri eta bereizgarriak aztertu behar dira. Bide horretatik irakurtzekoak dira **Autodeterminación de los pueblos...** aipaturiko liburuan argitaraturiko J. Apalategiren **Origen y desarrollo de los discursos alusivos a los elementos constitucionales de la especificidad vasca o en torno al concepto de la Nación vasca** eta P. Letamendiaren **Sobre la identidad colectiva en el País Vasco** artikulua.

Herrien autodeterminazio-eskubidea, eta bereziki Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubidea aldarrikatzen duten testu guztietan, funtsean erabaki politikotzat hartzen baldin bada ere autodeterminazioa, horren nahitaezko dimentsiotzat hartzen dira Herri autodeterminatuaren garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala. Eta hori noski, Herria erakuntza ekonomikoa, soziala eta kulturala delako. Izatez erabaki eta bide globala eta orokorra da Herriaren autodeterminazioa: juridiko-politikoa, ekonomiko-administratiboa eta linguistiko-kulturala. Hirugarren dimensio hori nabarmendu nahi dugu hemen.

Horretarako abiaburua eta oinarri ematen digu Herria-etniaren kontzeptuak berak. Horren ezaugarriak laburbilduz R.J.L. Breton-ek (Les **Ethnies** liburuan) ematen duen definizio honekin gera gaitzeko oraingoz, soila baldin bada ere: "Kultura bereziak batzen duen giza multzoa da, hobeto esanda, giza elkarte, da etnia". Ondoren zehazten diren ezaugarrien artean, nabarmen geldituko da hizkuntzaren garrantzia, herria edo etnia oinarritzean eta azaltzean. **Hizkuntza eta kultura:** biak ipintzen ditu Gy Herau-ek Etniaren (Herriaren) ezaugarri nagusitzat. Eta berak segurtatzen gaitu bide on horretatik, "etnotipiaren" azterketa egiten duenean bere liburu klasikoan (**L'Europe des Ethnies**).

Kultura, berriz, Herriaren sistema sinboliko globalizat ulertzen baldin badugu, orduan bere baitan biltzen ditu ez hizkuntza bakarrik, eta bai haren espresio juridikoa, politikoa, ekonomikoa eta administratiboa ere. Orduan Herriak eta Kulturak elkar definitzen dute. Eta herriaren autodeterminazioa nahitaez kulturazkoa izango da, juridiko formal hutsa izango ez bada.

Euskal Kulturaren bizkundera eta autodeterminazioa,

Ikuspegi antropologikotik begiratura, kultura bera da autodeterminaziozko gertakaria, mundu naturalaz jabetu egiten bait da gizakia, bere-berea duen kulturazko mundu sinbolikoa eratzeko.

Baina, bestalde, ikuspegi psiko-sozialetik eta soziologikotik begiratura, kulturazko gertakaria da Herriaren autodeterminazioa. Erabaki politikoa izateaz gain, eta alor ekonomikoan, sozialean eta kulturean "garatzen" delarik, funts-funtsean kulturazko fenomeno da Herriaren autodeterminazioa.

Buruajabetza giza ulertu izan da autodeterminazioa: hau da, norbere buruaren jabe izatea, Herria bere buruaren jabe izatea; eta ez inoren menpe edo besteren baten esku egotea. Baina nor bere buruaren jabe izateak, aurrenik nor bere nortasunaz jabetzea eskatzen du, buruz jabetzea. Hau da, autodeterminazioak aurrenik "autokontzientzia" eskatzen du. Autokontzientziatzko ekintza eta prozesua da izan berez eta funtsean benetako autodeterminazioa. Horregatik da kulturazko gertakaria autodeterminazioa, kultura bera kontzientziako fenomeno delako funtsean, komunitatearen sinbolo sistematzat hartu dugunetik.

Baina beste alde batetik da oraindik kulturazko gertakari Herriaren autodeterminazioa. Herriaren kulturazko sinbolo-sistemak beraren kontzientziako eredu-sistemari erantzuten dio. Autodeterminazioa, berriz eredu-sistemaz aldatzea da. Autodeterminatu gabe dagoen Herria, "heterodeterminatuta" dago, hots, kanpotik ezarritako eredun arabera ikusten eta irudikatzen du bere burua eta eredu horien arabera gauzatzen ere bere burua alor juridiko-politikoan, ekonomiko-administratiboan sozialen nahiz ideologikoan. Eredu arrotzak alde batera utzi eta eredu propioez jabetzean datza autodeterminazioa. Jabier Sádvak, goian aipaturiko bere itzaldia honela definitu zuen kulturazko autodeterminazioa: "Autodeterminarse culturalmente ha de ser para nosotros generar la propia cultura, reproducirla, saborearla, estar en ella, recrearse y difundirla".

Herriaren autodeterminazioa ez da noski erabaki puntual soila, halako egunetako erreferendu politikoa gauzatzen dena. Ekintza eta bidegintza da



Herriaren Autodeterminazioa, alde zuzenetik markaturiko bidea urratzea, neurri eta urrats politiko-jurídico jakinetan gauzatu doana eta erreferenduaren erabakian burutzen dena. Markaturiko bide horretatik kanpo Herriak hartzen dituen erabakiak, demokratikoak izanik ere, ez dira autodeterminaziozkoak hizkera politikojuridiko zehatzetan.

Baina Herriaren autodeterminazioko bidegintza eta azken ekintza politiko-juridikoak formalak eta soilak gerta daitezke, oinarriko eta aldi bereko autodeterminazio kulturazkoaren bidea egiten ez bada. Aipaturiko lehen Kongresuko azken agiriak argi dio Euskal Herriari dagokionez bere 2. puntuak: *"Constatamos la desmembración y los diversos grados de opresión ejercida sobre nuestro Pueblo por los Estados francés y español, cuyas consecuencias deben ser reparadas por una recuperación lingüística, cultural, territorial y nacional, en el camino hacia su pleno ejercicio de la autodeterminación"*. Herriaren autodeterminazio politiko juridikoaren prozesuaren abiaburuan, bidegintzan eta helburuan dago kulturazko autodeterminazioa.

Euskal Herriaren eta euskal kulturaren muin muinekoa dugun euskarari buruz dio J.R. Etxebarriak: *"Autodeterminaziorako bidean, gure hizkuntza izan da eta da abiapuntu nagusienetako bat, ez baita alferrik gure nortasunaren zeinu nabarmenena"* (**Autodeterminación de los pueblos...**, 314.or.). Herriak jasaten duen zapalkuntzaz buruz jabetzetik hasten bada autodeterminazioa, Euskal Herriaren egoeran hizkuntzazko-kulturazko zapalkuntza nabarmentzen da, Etxebarriak berak beheaxeako dioenez: *"Autodeterminaziorako eskubidea erabili nahi badugu, zapaldurik gaudelako da noski. Eta zapalkuntza horretan, beste puntu askoren artean baina oso nabari, ondo zapalduta daude hizkuntza eta kultura euskaldunak, euskara hutsez egiten direnak alegia"*. Eta jarraian bi esangura egozten dizkio autodeterminazio linguistiko-kulturalari: *"Autodefentsakoa"* eta *"sortzailea"*.

Kulturazko zapalkuntzak *"arrozketaren"* forma hartzen du Herri menperatuaren aldetik, kulturazko eredu eta sistema sinboliko arrotzez eta kanpotik ezarritakoez adierazten bait du bere burua; estatu menperatzailearen aldetik, berriz, ukapenaren forma hartzen du, Herri menperatuaren kultura ukatu egiten duelako, arrotza ezartzean. Horregatik, autodeterminazio kulturazkoaren abiaburua, Herria bere identitateaz jabetzean eta horren baieztatapenean datza.

Herriak bere espresio -eta komunikazio- sistema du kultura. Adierazpide eta komunikabide gertatzen da orduan kultura, eta prodikzioaren eta kontsumoaren sisteman sartzen da. Herri *"heterodeterminatuarentzat"* kulturazko menpekotasunaren forma hartzen du orduan zapalkuntzak, kulturazko produkzioaren eta kontsumoaren kontrola inoren eskuetan dagoelako. Horiek berreskuratzeko ahaleginean urratzen du Herriak bere kulturazko autodeterminazioaren bidea. Hori erabat lotuta dago, beraz, autodeterminazio ekonomikoarekin. Menpekotasun horren ondorio ere bada, bestalde, kulturazko arrotzeta edo alienazioa. IPESk argitaratu berria du Ramon Zalloren azterketa interesgarria, Euskal Herriaren dependentzia kulturalaz.

Azkenik kulturazko autodeterminazioa bidegintzaren helburuan jarri behar da: Herriaren kulturazko **bizkundera** da helburu hori. Herri autodeterminatu gabea Herri gutxitua, murriztua, urritua, minorizatua da bere kulturaren, menperatzailearen kulturaren arbola handia horri nagusitu zaiolako, bera landare erkin eta maxkal geratuz. Kulturazko autodeterminazioak kultur landaretzara lur sendoan eta eguzki zabaletan birlandatzea esan nahi du, biziberriturik eta handiturik lore ederrez loratu dadin eta fruitu oparoz *"fruitutu"* dadin. Autodeterminazio kulturazkoa *"sortzailea"* izango bada, J.R. Etxebarriaren hitzetan, kultur sormena piztea, indartzea eta sendotzea eskatzen du. Herriaren autodeterminazio politiko-juridikoa, ekonomikoa eta soziala, kulturazko errenazimenduari batera etorri izan da. ■